

urriak 4 ZUZEN Sound System


# AUTODETERMINAZIOA GAUZATZEA POSIBLE DA



# ERREFERENDUMA ZUZEN ZUZENEAN



# Autodeterminazio eskubidea gauzatzea posible da! ERREFERENDUMA, ZUZEN ZUZENEAN !!!



## 1. ZER DA ZUZEN?

### 1.1. Zuzen ekintza talde bat da. “Ezina ekinez egina” izan da, hasieratik, gure leloa.

Esan baino nahiago dugu egin. Horregatik Zuzen ekintza taldekideok zeintzuk garen, zer pentsatzen dugun, zeren alde eta nola lan egiten dugun... jakin nahi baduzu datozen hitzak irakurri baino hobere duzu ekinbidea ezagutu eta hortik ondorioak ateratzea. Egunero egiten ari garen bidean helmuga marrazten saiatzen baikara.

Hitza ere beharrezkoa denez saiatuko gara Zuzen taldeari buruz azalpen txiki bat ematen.

### 1.2. Zuzen, giza eskubideen alde lan egiten duen Gobernu Kanpoko Erakunde bat da; anitza, askea.

### 1.3. Euskaldunon hizkuntza eskubideak, Euskal Presoen giza eskubideak eta Autodeterminazio eskubidea aldarrikatu eta gauzatzeko lan egiten dugu.

### 1.4. Honetarako ekintza zuzenak egiten ditugu; ekintza publikoak, ez-bortitzak eta erakargarriak.

### 1.5. Ekintza, ekimen... erakargarriak egiten ditugu, gizartearen gehiengoa erakartzea helburu eta bitartekoa dugulako.

Gizarte parte hartzailea lortzea helburua dugu; berezko helburua izateaz gain gizartearen gehiengoak parte hartzea bitarteko eraginkor eta zuzenena iruditzen zaigu aldarrikatzen ditugun giza eskubideak inoiz bete ahal izateko.

### 1.6. Zuzen: izena eta izanak bat egiten saiatzen gara gure jardueran:

#### • Zuzen, zuzentasunez jokatu.

Helburu ditugun giza eskubideak oinarri dira gure jardueran eta bitartekoetan. Gure jardueran inork (eta are gutxiago Euskal Herriaren eskubideak errespetatzen ez dituztenak) ez digu bere arauak edo/ta borroka moldeak ezarriko. Helburu dugun “bestelako mundua” ren irizpide eta giza baloreek gidatzen dute gure jardueran, beti eta edozein egoeraren aurrean.

#### • Zuzen, norabidea etengabe zuzenduz.

Erabakiak hartzeko unean erantzukizun osoz jokatu dugu eta hartutako erabakiak ondorio guztiekin eraman ditugu aurrera. Emandako pausoetan batzuetan okertuko garela badakigu; aurrerapausoak emateagatik izan dadila. Ibilian dabilena okertzen baita soilik.

Bidailagunek etengabe egiten ditugun azterketek adieraziko digute zer zuzendu eta hurrengo urratsak nondik zuzendu.

#### • Zuzen, egoerari zuzenean erantzunez.

Ekintzetan sinisten dugu; txiki zein handi baina urratsak, ekintzak. Egingo (eta ez esango) dugunaren arabera izango gara, gure ustez. Aurreiritzi eta barne mugak puskatu nahi ditugu. Gure helburuen alde lan egiteko, hitz gutxiago eta ekimen gehiago behar ditugula uste dugu; oinarritzko adostasunak lortu eta zuzen zuzenean urratsak eman. Gizartearen eskumen eta ahalmena mugagabea dela uste dugu:

# urriak 4 ZUZEN Sound System

- Euskal presoak dauden kartzeletara joanez Euskal Herrira erakartzea posible da!. Bai, noski!
- Euskaraz jardun, euskararen presentzia gune eta une guztietan bermatuz Euskal Herria euskaldundu!, Bai, noski!
- Autodeterminazio eskubidea gauzatu!. Erreferenduma zuzen zuzenean!. Bai, noski!.

## 1.7. Zuzen ekintza taldea 2001. urtean ekin genion ekintza zuzenak egiteari.

*Presoekin Elkartasun taldeko* lagunok, 15 ekintza egin ondoren (Gabonetan Olentzeroak kartzeletara eraman, Esteban Nietori ospitalean bisita desobedientea, Giraldillak...) Zuzen ekintza taldea sortu genuen.

## 1.8. Gaur arte 10 ekintza egin ditugu; batzuk ekintza selektiboak eta beste batzuk ekintza masiboak. Ekintza batzuekin bidean sakontzea dugu helburu (kartzeletako paretak gainditzea eta presoengana iristea adibidez) eta beste ekintza batzuekin bidea zabaltzea izaten da erronka (Bartzelonako 1. Zuzen Sound System kasu).

Giza eskubideak bete ahal izateko, helmugara iristeko, aurreko bi norabideak beharrezkoak dira, gure ustez, bidea sakondu eta bidea zabaltzeko egin behar ditugu. Bidean urratsetan sakontzeko modu bakarra, aurretik, bidea zabaltzea baita. Intsumisioak, ere, intsumituaz gain, objetoreak, babesleak, laguntzaileak, gizartearen gehiengoaren babes zabala... atzean zituelako izan zuen bidean sakondu eta soldaduskarekin bukatzeko aukera.

Ekintza mota desberdinak burutu nahi ditugu; gizartearen gehiengoari parte hartzeko aukera eman. Horrela joan gaituzke, urratsez urrats, elkarrekin aurrera, helburu ditugun eskubideetarako une eta guneak irabazten, helmuga dugun "bestelako" Euskal Herria sortzen.

Bidailagun guztiak beharrezkoak dira bidai honetarako; lagun bakoitzak ahal edo/eta nahi duen lekutik abiatu eta ahal edo/eta nahi duen abiaduran joanez. Beti ere, eta bidailagunekiko begirune minimoak aginduta, norberak hartutako erantzukizuna betetzen saiatzea da eskatzen dugun bakarra.

## 1.9. Kontzientziak gidatzen gaitu.

Lege edo/eta egoera injustu baten aurrean "desobeditzea" zilegi izateaz gain jarrera zuzena, ere, badela aldarrikatzen dugu. Gure "obedientzia" da, injustiziak duen indarrik handiena, gure ustez. "Obeditzea", batzuetan, injustua baita.

*"La única fuerza de los generales es nuestra obediencia"*

Desobedientzia zibila zilegia izateaz gain bide emankorra, baikorra, aberatsa, sortzailea, osasuntsua... ere, badela uste dugu.

## 1.10. "Ezina ekinez egina" izan dugu lelotzat hasiera hasieratik.

Gau iluna omen den une hauetan egunsentia bizi dezakegula uste dugu. Baikor aritzen gara lanean. Intsumisio mugimenduak 10-15 urteetako lanaren ondorioz soldaduskarekin bukatu zuen moduan, Euskal Herrian ematen diren herri eta giza eskubideen urraketarekin bukatzea posible dela uste dugu. Lana txukuna eginez gero helburuak, ametsak...betetzea posible dela uste dugu. "Bestelako Euskal Herria" posible dela uste dugu.



# urriak 4 ZUZEN Sound System

## 1.11. Giza eskubideak betearaztea gizarte parte hartzailearen esku.

Gatazka politikoan ez gara inoiz, zuzenean murgilduko. Iritzi politikoan gainetik, gizartearen gehiengoaren parte hartze zuzena bilatzen dugu.. Orain arte gizarte zabalak erakutsitako babesaren parte hartzea bilakatu nahi dugu. Oinarrizko helburu eta baliabideak adostu eta hitzetatik ekintzetara pasa zuzen zuzenean.

Giza eskubideak betearaztea gizarte parte hartzailearen esku dagoela uste dugu. Gizartearen parte hartzeaz hitz egiten dugunean ez dugu botoa emateari buruz hitz egiten soilik.



# Autodeterminazio eskubidea gauzatzea posible da! ERREFERENDUMA, ZUZEN ZUZENEAN !!!

**Gaur zuengana zuzentzen gara, zuek ere ekimen honetako parte hartzaile zuzenak izaten gonbidatu nahi zaituztegu.**

Helburu zehatza dugu urriaren 4an, Donostian, burutuko dugun ekimen berri honetan: Zuzen Sound Systema (musikariekin egindako manifestazioa, eszenategia kamioi bat da) eta ondoren burutuko dugun "Erreferenduma, zuzen zuzenean!!!, 1.000 bozka baietz" antzerki herrikoian ahal den eta jende gehien parte hartzea. Egingo al dugu?

## 2. Autodeterminazio eskubidea gauzatzea posible da! ERREFERENDUMA, ZUZEN ZUZENEAN !!!

2.1. Autodeterminazio eskubidea Zuzen ekintza taldekideok ulertzen dugun moduan.

Autodeterminazioaren gaia askoren ahotan dagoen une hauetan, zer da edo nola ulertzen dugu autodeterminazio eskubidea Zuzen ekintza taldean?

- Zer da autodeterminazio eskubidea?

Nazio batuen Erakundeak giza eskubideen gutunean adierazten duen bezala herri orok bere burua libre determinatzeko eskubidea du, bere izaera politiko zehaztu eta garapen ekonomikoa, sozial eta kulturala ziurtatzeko eskubidea du.

- Nork du autodeterminazio eskubidea?

Nazio batuen Erakundeak giza eskubideen gutunean adierazten duen moduan herri orok du bere burua libre determinatzeko eskubidea.

Euskal Herriaren kasuan kulturalki herri bat garela inork ez du ukatzen. Euskal Herri osoko herritarrok, bertako gizartearen gehiengoak erabaki beharko dugu, beraz, politikoki nola egituratu nahi dugun.

Euskal Herrian badira errealitate, sentsibilitate, sentimendu ezberdinak, lagun batzuk espainol sentitzen dira, beste batzuk frantses eta beste asko euskal herritarrak soilik.

Autodeterminazio eskubidea, errealitate, sentimendu, sentsibilitate ezberdinen topalekua bezala irudikatzen dugu. Sentsibilitate bakoitzak bere proposamenak azaltzeko aukera izan eta, ondoren, herritarrek gure etorkizuna erabakitzekeo eskubidea gauzatu.

Zer izan nahi dugun erabakitzekeo aukera bat izan, autodeterminazio erreferenduma.

- Nola gauzatu behar da autodeterminazio eskubidea?

Zuzen ekintza taldekideok ez dugu iritzi bakarra, ezta nahi ere, autodeterminazio eskubidea nola gauzatu behar den zehazteko orduan: herritar, herrialde... guztiak batera edo abiadura ezberdinetan... Kontrako eragina du, gure ustez, gaur egun errealitatean ez ditugun



arazoak mahai gainean jartzea. Are gehiago ikusten dugunean eztabaida filosofiko orokorrak praktika ezarako arrazoiak bihurtu direla.

Ekinaren poderioz eskubidea gauzatzeko aukera izango dugunean, egoera errealia izango denean hau horrelako eztabaida, arazo...asko konpontzen behartuta izango gara. Orduan izango da gaia argitzeko tenorea eta gainditu beharreko erronka.

• **Zerk elkartzen gaitu Zuzen ekintza taldean?**

Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen alde izatea. Baina, era berezian, eskubidea gauzatu dadin urratsak emateko gogoak izatea eta ekinaren ondorioz emandako urrats bakoitzak helmugara hurbiltzen gaituela sinistek elkartzen gaituzte.

Elkartzen garenean autodeterminazio eskubidea gauzatearen alde lan egiteko elkartzen gara. Oinarrizko adostasunak bilatzen ditugu eta bidean urratsak emateari ekiten diogu. Iritsiko ote garen ez diogu gure buruari galdetzen baizik eta iristeko zein urratsak eman behar diren argitu eta horren arabera ekiten diogu lanari.

• **Baina, autodeterminazio eskubidea gauzatzea posible al da?**

Bai. Zuzen kideok elkartzen gaituen beste gai bat da, eskubidea gauzatzea gizartearen esku dagoela pentsatzea da. Halere garrantzitsuena, gure ustez, ez da jakitea posible den ala ez baizik eta autodeterminazio eskubidea gauzatu dadin urratsak eman nahi izatea.

Elkartzen garenean ez dugu pentsatzen eskubidea gauzatuko den ala ez baizik eta inoiz gauzatu ahal izateko une horretan zein urrats eman behar dugun. Gaitasuna eta baliabideak aurreikusi, egoeraren azterketa egin, erabaki zuzenak hartu, urratsa ondo prestatu eta lana, lana txukun burutu... egindako lana baita guztiaren gakoa; horrela egingo dugu aurrera bidean, helmuga bidean sortu, une eta guneak irabazi.

Gizartearen gehiengoaren parte hartzea lortutakoan bide erdia egina izango dugula pentsatzen dugu. Autodeterminazio eskubidea burutu ahal izateko gainditu beharreko bi tontor ikusten ditugu:

- Lehenengoa erreferenduma gauzatzea eta emaitza gehiengo zabalaz lortzea.
- Bigarren tontorra, hots, emaitza gauzatzea, gaindituko dugu, gehiengo zabalak ematen duen zilegitasuna oinarri hartuta: gizartearen gehiengoaren erabakiak praktikara eramateko kapazak izango garenean, etor daitezkeen arazoak ahal den eta txukunen konponduko ditugunean eta gizartearen gehiengoak erabakitakoa denok onartzea lortuko dugunean .

**2.2. Nork dio gizartearen erabakiari beldurra?, nork dio beldurra!**

Gizartearen eskubidea da erabaki ahal izatea eta politikoen erantzukizuna, kasu honetan, gizarteari galdetzea. Jabetuta gaude, hala ere, galdetu gabe erantzun daitekeela. Gizartearen gehiengoaren parte hartze zabala lortzea, gizartearen gehiengoaren iritzia jakitea urrats oso garrantzitsua izan daitekeela bizi garen egoera ilun honetatik atera ahal izateko. Gibraltarren egindako erreferendumaren kasua izan dugu azken adibidea; Ez zuen baliorik baina balio handikoa izan da.

Hainbeste urteetan luzatzen ari den egoera tamalgarri eta gogor honetan gizabanakoek



iritzia emateko dugun beharra, behar kolektiboa bihurtu nahi dugu: herritarrok gure iritzia eman nahi dugu eta politikoei entzun dezatela, emaitza aginduzat har dezatela eskatu. Iritzia emateko modurik zuzenena erreferenduma egitea denez erreferenduma burutu nahi dugu. gizartearen ahotsa entzunarazi nahi dugu.

Iritzi eta interes politikoen gainetik. Erreferendumera deitu, era sinbolikoan hasieran, herriz herri, ondoren, era ofizialean noizbait. Gizartearen ahotsa entzunarazi. Gorrenak ere entzungo dute erreferendumak burutuz, gehiengoaren parte hartzea lortzen bada.

Emaitzari ez diogu beldurrik. Gizartearen gehiengoaren iritzia denok errespetatu beharko genuke, erabakitakoa agindu bihurtu eta politikoa aginduak bete. Eskubideak ez daude emaitzen esku. Erabakitakoa praktikara eramane beharko da eta denok onartu. Gizartearen gehiengoak erabakitakoari nork dio beldurra? Nork dio beldurra!

## **Erreferenduma zuzen zuzenean!. Egingo al dugu?**

### **2.3. Erreferenduma, zuzen zuzenean**

Txikiak izan arren, boz-gailuetan igo eta “hori ez dela inoiz gertatuko” ozenki esaten duenari, kontrako aldean, hori inoiz gertatuko ez dela pentsatuz, ezkor bizi duenari eta nola ez, gogotsu, entzun nahi duen guztiari... goxo goxo, xume xume... baina baikortasunez gure iritzia eman nahi genieke.

Bidea hartzea dugu orain gakoa, norberak eta gizartearen gehiengoak bidea hartzea. Bide guztiak lehenengo urratsarekin hasten direnez, norberaren esku dago bidea hartzea, autodeterminatzeko urratsak emanez bizitzea. Bidean aurrera egitea, norabidearekin asmatzea, bidailagunak bilatu eta elkartzea, sortu daitezkeen bidailagun taldeak indartzea, banandu gaitzken arazoak 2. mailan uztea...

Emandako urratsen arabera lehenago edo beranduago iritsiko gara. Bidean jarritako oztopoekin denbora galdu edo/ta zuzenean aurre egin baino, oztopoaren gainetik salto egin eta aurrera segitzea erabakita dugu. Helmugara iristeko eman beharreko urrats guztiak eman eta gero iristen delako. Bidea bukatzen dugunean helmugara irizten garelako. Erreferenduma burutzea, zuzen zuzenean

### **2.4. Sentsibilizazio kanpaina martxan, gizarte eta kultur eragileen martxa.**

Euskal herritarrok erabakiak aske hartzeko, determinatzeko eskubidea daukagu. Ulertzen ez dugun demokrazia baten izenean eskubide bermatu orde, mugak jarri eta autodeterminazio eskubidearen esanahia nahastu egiten dute

Autodeterminazio erreferenduma gauzatzea posible dela uste dugu.

Zenbat bozka behar dira zilegitasuna lortzeko?. Zenbat lagun gaude prest dugun eskubide hau pertsonalki gauzatzeko?. Nola entzungor egingo diote, Gibraltarren gertatu den moduan, egunen batean Euskal herriko gizartearen gehiengoak erreferendum batean parte hartzen badu?. Eta bertan aterako den emaitza gauzatzen gizartearen gehiengoak parte hartzen badu?.

Ez al zen horrelako emaitza berme nahikoa izango erabakitakoa praktikara eramaten hasteko?



Zuzen ekintza taldean autodeterminazio eskubidea gauzatzen hasteko, sentsibilizazio kanpaina egiteko, lanerako bide nahikoa ikusten dugu gaur egun. Oztopo guztien gainetik urrats desberdinak emateko aukera ikusten dugu. Egunen batean gizartearen gehiengoak parte hartu ahal izateko aurretik gizartea sentsibilizatzea, motibatzea eta babesa parte hartze bihurtzea ezinbesteko urratsak ditugu. Lanean jarduteko, beraz, lan sobera badugu.

Hau dela eta, **Zuzen ekintza taldeak**, Donostian urriaren 4a, arratsaldeko 5etatik aurrera burutuko diren **Zuzen Sound System-a** eta **“Autodeterminazio erreferenduma, zuzen zuzenean!!!, 1.000 bozka baietz”** antzerki herrikoian parte hartzea gonbidatu nahi zaitu.

Helburua “Autodeterminazio erreferenduma, zuzen zuzenean!!!, 1.000 bozka baietz” antzerki herrikoian ahal den eta jende gehien parte hartzea izango dugu.

Erronka 1.000 lagunek parte hartzea izango dugu, 1.000 bozka jasotzea. Autodeterminazio eskubidea gauzatuko duten lehenengo 1.000 lagun aktore aktiboak elkartzea helburu izango dugu.



Hurrengo erronka “Autodeterminazio erreferenduma, zuzen zuzenean!!!, 10.000 bozka baietz” antzerki herrikoian 10.000 lagun biltzea izango genuke eta aurrerago, baldintzak emango direnean 3. erronka jarriko genuke mahi gainean antzerki herrikoia burutzeko 100.000 aktore biltzea.

Erronkak irabazteko jartzen direnez denbora eta lan pixka bat beharko dugu erronkak gainditzen joateko. Bien bitartean eguraldi ona, elkarbizitza osasuntsuagoa eta lan giroa atsegina lortzea eskergarria izango genuke denok.

*“Irribarre egitea osasuntsua, erakargarria, aberasgarria... izateaz gain, hortzak erakusteko modurik onena da.”*

Ondo izan  
Zuzen ekintza taldeko lagunak.



[zuzentaldea@hotmail.com](mailto:zuzentaldea@hotmail.com)  
Oiartzun kalea 5. behea  
20100 Orereta  
Tel: 943 34 40 59

**urriak 4 ZUZEN Sound System**